



ESKOLA KONTSEILUA:
ESKOLAZ KANPOKOAK

- Eguerdian ez dira eskolaz kanpoko jarduerak antolatuko.
- Ezinbestekoa da eskolaz kanpoko jardueren koordinatzailearen figura.
- Lehen Hezkuntzako 1. mailan beharrezkoa izango da familiek edo jardueren arduradunek ikasleen kargu egitea 16:30ean. Umeek txikiak direlako askotan despistatzen dira.
- Monitore guztiek jarduerarako planteatzen duten proiektu txiki bat edo helburu minimo batzuk aurkeztu beharko dituzte. Curriculumaren arabera hautagaia aukeratzea komenigarria izango da.
- Ikasleekiko tratua eta euskara ezinbesteko arloak izango dira monitoreak aukeratzekoan. Monitoreei honi buruz informatuko zaie.
- Monitoreen kontratazioa zuzenean guraso elkarteak egingo du, bitartekaririk gabe. Ez dira enpresak kontratatuko, pertsonak baizik.
- 2 urteko ikasleentzat ez dira jarduerak antolatuko.
- 3 urteko ikasleentzako antolatzen diren jardueretan familiek parte hartu behar izango dute.
- Ikasle batek, ASTEAN guztira ezin izango ditu inolaz ere ikastetxean 40 ordu baino gehiago egin. Ordu hauetan, bai eskola orduak, bai zaintza, jantokia eta eskolaz kanpoko jarduerak sartuko dira. Familia bakoitzak ordu hauek arduraz kudeatuko ditu maximo hori gaingaitu gabe.
- Zabalganeko gizarte etxeko instalazioak erabiltzeko aukera onartzen da. Horrela, espazioak liberatu eta jardueran gehiago proposatu ahal izango dira. Familiak arduratuko dira ikasleak eramateaz. Monitorea zuzenean gizarte etxera joango da jarduera ematera.

CONSEJO ESCOLAR:
ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES

- No se impartirán actividades extraescolares al mediodía.
- Es imprescindible la figura del coordinador o coordinadora de actividades extraescolares.
- En 1º de Educación Primaria es necesario que las familias y/o los responsables de las actividades se hagan cargo del alumnado a las 16:30. Los niños y niñas en ocasiones se despistan dado su corta edad.
- Todos los monitores/as de las actividades deberán presentar un pequeño proyecto o unos objetivos mínimos que plantean para dicha actividad. Es recomendable elegir a la persona adecuada teniendo en cuenta su currículo.
- El trato al alumnado y el euskera son temas imprescindibles a la hora de la elección del monitor. Los monitores deberán ser informados de ambos aspectos.
- La contratación de los monitores debe hacerse de forma directa por parte del AMPA, sin que haya intermediarios. Se contratarán personas, no empresas.
- No se propondrán actividades para el alumnado de 2 años.
- En las actividades que se propongan para el alumnado de 3 años tienen que tomar parte las familias.
- El número de horas de permanencia en el centro de un alumno/a en ningún caso excederá de las 40 horas SEMANALES. En estas horas se incluyen tanto las horas de clase, como el servicio de custodia, el comedor y las actividades extraescolares. Cada familia administrará estas horas de manera responsable no excediendo nunca de dicho máximo.
- Se permite la posibilidad de utilizar las instalaciones del centro cívico de Zabalgana para poder así liberar espacios y proponer nuevas actividades. Serán las familias las que se responsabilicen del traslado del alumnado. El monitor acudirá directamente al centro cívico a realizar la actividad.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekaina.

En Vitoria-Gasteiz, junio de 2018.